

BARNE SUSTAPENA

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZEN KUDEAKETAKO TEKNIKARI ERTAINAK

Lehenengo ariketa

1 KODE ZIBILAREN ARABERA, JABETZARI DAGOKIONEZ, ERANTZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 1a) Norbaitek besteren lurreen eraiki, landatu edo ereiten badu gaitzuste, bertan eraiki, landatu edo ereindakoa galtzen du, kalte-ordaina eskuratzeko eskubiderik gabe.
- 1b) Norbaitek besteren lurreen eraiki, erein edo landatzen badu onustez, lur horren ugazabak obra, ereintza, edo landaketa bereganatzeko eskubidea du, 453 eta 454. artikuluetan ezarritako kalte-ordaina eman eta gero; edo, bestela, lurraren ugazabak bertan zerbait fabrikatu edo landatu duena behartu dezake lurraren prezioa ordaintzera, eta lurra erein duena, errenta egokia ematera.
- 1c) Altxor ezkutuari dagokionez, gauza ustekabeen aurkitzen denean inoren lurreen edo Estatuaren lurreen, aurkitutakoaren erdia aurkitzaileari emango zaio.
- 1d) Fruitu naturalak dira lugintza edo lanaren ondorioz edozein motatako lurrek ekoizten dituzten gaiak.

2 KODE ZIBILEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, GOZAMENDUNAREN BETEBEHARREI DAGOKIENEZ, ERANTZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 2a) Jabearen kontura geratuko dira gozamenak iraun artean kapitalaren gain zuzen-zuzenean ezartzen diren kontribuzioak.
- 2b) Gozamendunaren betebeharra da gozamenpeko gauzetan beharrezkoak diren konponketa arruntak egitea.
- 2c) Konponketa bereziak jabearen kontura izango dira.
- 2d) Gozamenaren eraketa-tituluak zehaztuko ditu gozamendunaren eskubide eta betebeharrak; titulu horretan ez bada ezer zehaztu edo bertan zehaztutakoa nahiko ez bada, Kode Zibilean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

3 KODE ZIBILEKO 1.280 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, AGIRI PUBLIKOAN AGERRARAZI BEHARKO DIRA (ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?):

- 3a) Ondasun higigarri baten sei urte edo gehiagoko errentamendua.
- 3b) Jarauntsi bati uko egitea.
- 3c) Akzioak edo eskubideak lagatzea, baldin eta kontratugile bati edo biei dagozkien prestazioen kopurua 150.000 eurotik gorakoa den egintza batetik sortzen badira.
- 3d) Automobil baten dohaintza.

4 HIRI ERRENTAMENDUEN LEGEAK ARAUTZEN DITUEN ETXEBIZITZEN ERRENTAMENDUARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ADIERAZPEN ZUZENA?

- 4a) Artatze-obra betearaztea zentzuz atzeratu ezin denean errentamendua amaitu arte, errentariak eskubidea du kontratuan atzera egiteko eta jasotako kalteen ordaina jasotzeko.
- 4b) Errentari minusbaliatuak etxebizitza egokitzeko beharrezko lanak egiten baditu, kontratua amaitzen denean lehen zegoen egoeran jarri beharko du etxebizitza, errentatzaileak hala eskatuz gero.
- 4c) Errentariak premiazko konpontze-obrak egin ahalko ditu, errentatzaileari alde zuzenetik horren berri eman beharrik izan gabe, hur-hurreko kalteren bat edo eragozpen larriren bat saihesteko.
- 4d) Errentatzailearen kontura izango dira etxebizitzaren ohiko erabilerak dakarren higaduraren ondorioz egin beharrezko konponketa txikiak.

5 ALBAZEARI BURUZ KODE ZIBILAK XEDATZEN DUENAREN ARABERA, ADIERAZPEN HAUEN ARTEAN ZEIN DA ZUZENA?

- 5a) Ezin dituzte erosketaren bidez eskuratu, jendaurreko edo epaiketazko enkantearen bidez ez bada, euren ardurapean jarritako ondasunak.
- 5b) Adingabeak albazea izan ahalko du, guraso edo tutorearen baimenarekin.
- 5c) Albazeatza dohaineko kargua da. Hala ere, testamentugileak bere ustez komenigarri den ordainsaria zehaztu dezake albazeentzat.
- 5d) Albazeatza nahitaez bete beharreko kargua da, legearen arabera.

6 EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDEARI BURUZKO 1992KO UZTAILAREN 1EKO 3/1992 LEGEAREN ARABERA, ESKUORDE BIDEZKO TESTAMENTUARI DAGOKIONEZ ZEIN DA ZUZENA?

- 6a) Edonola ere, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrenda egin beharko du behin eskuordetzaila hil eta eskuordeko izendatu duela jakiten duenetik sei hilabeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dioenaren jakitun jarri beharko ditu.
- 6b) Edonola ere, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrenda egin beharko du behin eskuordetzaila hil eta eskuordeko izendatu duela jakiten duenetik urtebeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dioenaren jakitun jarri beharko ditu.
- 6c) Eskuordekoaren ardura dohainekoa izango da beti. Hala ere, oinordetzailak bere ustez komenigarri den ordainsaria zehaztu dezake eskuordekoarentzat.
- 6d) Edonola ere, oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, alarguna izango da jarauntsiaren ordezkari eta administratzaile, eta, alargunik ezean, eskuordekoa bera.

7 LAN-KONTRATUAREN AMAIERARI DAGOKIONEZ, HAUETAKO ZEIN ADIERAZPEN EZ DA ZUZENA?

- 7a) Lan-kontratua langilearen borondatez amaituko da, enpresaburuak ez duela kontratua bete oinarri hartuta.
- 7b) Lan-kontratua langilea kaleratuta amaituko da.
- 7c) Langilea hil, erretiratu edo ezgaitasunean aurkitzen bada, hilabeteko soldataren pareko zenbatekoa jasotzeko eskubidea izango du.
- 7d) Lan-kontratua amaitu egingo da, emakume langileak hala erabakitzen badu, genero-indarkeriaren biktima izanik lanpostua behin betiko utzi beharrak hartararuta.

8 LANGILEEN ESTATUTUAREN ARABERA, LEGEZKO KALTE-ORDAINEI DAGOKIENEZ ZEIN ADIERAZPEN EZ DA ZUZENA?

- 8a) Lan-baldintzetan funtsezko aldaketak gertatzen badira eta langilea kaltetuta geratzen bada, eskubidea izango du kontratua eteteko eta zerbitzuan egindako urte bakoitzeko hogeitau eguneko kalte-ordaina jasotzeko; urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, eta bederatzi hilabetekoa izango da gehienez ere eskuratu ahal izango den kalte-ordaina.
- 8b) Kaleratze kolektiboetan, langileek eskubidea izango dute hogeitau eguneko kalte-ordaina jasotzeko zerbitzuan eginiko urtebete bakoitzeko; urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, eta hamabi hilabetekoa izango da gehienez ere eskura daitekeen kalte-ordaina.
- 8c) Langilea enpresan sartu eta gero ezagutu edo agertu zaion ezgaitasunagatik eginiko kaleratzean, idatzizko jakinarazpenarekin batera, nahitaez jarri behar da langilearen eskura zerbitzuan eginiko urte bakoitzeko hogeitau eguneko kalte-ordaina; urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira eta hamabi hilabetekoa izango da gehienez ere eskura daitekeen kalte-ordaina.

- 8d) Kaleratze deuseza bada, langileek eskubidea izango dute aukeratzeko edo berehala har ditzatela berriz edo berrogeita bost soldata-eguneko kalte-ordaina eman diezaietela zerbitzuan eginiko urtebete bakoitzeko; urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, eta berrogeita bi hilabetekoa izango da gehienez ere eskura daitekeen kalte-ordaina.

9 MERKATARITZA KODEKO 221. ARTIKULUAREN ARABERA, KONPAINIA MOTA EDOZEIN IZANDA ERE, HONAKO HAUEK DIRA BERORI DESEGITEKO ARRAZOIAK: (ADIERAZI ZEIN DEN ADIERAZPEN OKERRA):

- 9a) Sozietate-kontratuan aurrez ezarritako epemuga betetzea.
 9b) Horren xedea den enpresa burutzea.
 9c) Galerak direla-eta, konpainiaren ondarea kapitalaren erdia baino gutxiagora murriztea.
 9d) Likidazio-fasea irekitzea, konkurtsopean dagoen konpainian.

10 MERKATARITZA KODEAN AGERI DEN SOZIEATE TALDEEN ERREGULAZIOARI DAGOKIONEZ (42. ARTIKULUA), ZEIN DA ADIERAZPEN ZUZENA?

- 10a) Talde bat existitzen da, baldin eta sozietate batek, zuzenean edo zeharka, beste sozietate baten edo batzuen sozietate-kapitalaren % 75 gutxienez duenean.
 10b) Urteko kontuak eta kudeaketa-txosten finkatuak egiteko betebeharrak salbuetsi egiten ditu taldeko sozietateak euren urteko kontuak eta dagokien kudeaketa-txostena egitetik, euren erregimen espezifikoa dela-eta.
 10c) Talde bat existitzen da, baldin eta sozietate batek, zuzenean edo zeharka, beste sozietate baten edo batzuen kontrola badu.
 10d) Taldeko sozietate guztiek egin behar dituzte euren urteko kontu eta kudeaketa-txosten finkatuak.

11 ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIEATEEI BURUZKO LEGEAN EZARRITAKO SOZIEATE-PARTAIDETZEN ERREGIMENAREN ARABERA (ZEIN DA ADIERAZPEN ZUZENA?):

- 11a) Sozietate mugatuek boto-eskubiderik gabeko partaidetzak jaulki ditzakete, baina horien balio izendatua ezin da izan sozietate-kapitalaren herenetik gorakoa.
 11b) Sozietateak akta-liburu bat eraman behar du, eta bertan jaso behar da sozietate-partaidetzen jatorrizko titulartasuna, bai eta horien ondorengo eskualdaketak, borondatezkoak zein derrigorrezkoak, eta, aldi berean, partaidetza horien gain eratutako eskubide errealak eta bestelako kargak.
 11c) Deusezak dira sozietate-partaidetzen borondatezko eskualdaketak *inter vivos* egintzen bidez gauzatzeko aukera debekatzen duten estatutu-klausulak.
 11d) Sozietate mugatuek boto-eskubiderik gabeko partaidetzak jaulki ditzakete, baina horien balio izendatua ezin da izan sozietate-kapitalaren erditik gorakoa.

12 ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIEATEEI BURUZKO LEGEAN EZARRITAKO ENPRESA BERRI SOZIEATEAREN GAINEKO ARAUDIAREN ARABERA (ZEIN DA ADIERAZPEN ZUZENA?):

- 12a) Pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke Enpresa Berri sozietatearen bazkideak, baina bost baino gutxiago izan behar dira.
 12b) Enpresa Berri sozietatearen kapitala ezin da izan hiru mila eta hamabi eurotik beherakoa, ezta ehun eta hoge mila, berrehun eta bi eurotik gorakoa ere.
 12c) Diruzkoak ez diren ekarpenak eratze-eskrituran edo kapitala gehitzeko eskrituran deskribatu behar dira, ondokoa aipatuz: horien erregistro-datuak, halakoak izanez gero; eurotan emandako balioa eta ordainean emandako partaidetzen zenbaketa.

- 12d) Sozietatearen administrazioa utz daiteke administratzaile bakarraren esku, modu solidarioan zein batera diharduten hainbat administratzailearen esku edota Administrazio Kontseiluaren esku.

13 SOZIETATE ANONIMOEN LEGEAREN TESTU BATEGINEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, DIRUZKOAK EZ DIREN EKARPENEI DAGOKIENEZ, SOZIETATERA EKARTZEN DIREN EKARPENAK ONDASUN HIGIGARRI EDO HIGIEZINAK EDO HORIEKIN BERDINETSITAKO ESKUBIDEAK BADIRA, ZEIN BETEBEHAR IZANGO DITU EKARPENA EGIN DUENAK?

- 13a) Gauza emateko eta saneatzeko betebeharrak ditu, Kode Zibilak salerosketa-kontratuaren kasuan ezarritakoaren arabera, eta Kode bereko arauak aplikatuko dira arriskuen eskualdaketari dagokionez.
- 13b) Gauza emateko eta saneatzeko betebeharrak ditu, Merkataritza Kodeak salerosketa-kontratuaren kasuan ezarritakoaren arabera; arriskuen eskualdaketari dagokionez, Kode Zibilak kontratu berberaren inguruan eman dituen arauak aplikatu behar dira.
- 13c) Gauza emateko eta saneatzeko betebeharrak ditu, Kode Zibilak salerosketa-kontratuaren kasuan ezarritakoaren arabera; arriskuen eskualdaketari dagokionez, Merkataritza Kodeak kontratu berberaren inguruan eman dituen arauak aplikatu behar dira.
- 13d) Gauza emateko eta saneatzeko betebeharrak ditu, Merkataritza Kodeak salerosketa-kontratuaren kasuan ezarritakoaren arabera, eta Kode bereko arauak aplikatuko dira arriskuen eskualdaketari dagokionez, Kode berak kontratu berberaren inguruan eman dituen arauak aplikatu behar dira, arriskuen eskualdaketari dagokionez.

14 SOZIETATE ANONIMOEN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, AKZIOAK DOKUMENTATU ETA ESKUALDATZEARI DAGOKIENEZ, HURRENGOETATIK ZEIN DA ZUZENA?

- 14a) Akzioak, horien zenbatekoa oso-osorik ordaintzen ez den bitartean, nahitaez izan behar dira izendunak, eta tituluen bidez adierazi behar dira.
- 14b) Akzioak, horien zenbatekoa oso-osorik ordaintzen ez den bitartean, nahitaez izan behar dira izendunak, eta tituluen edo kontuko idatzoharren bidez adieraz daitezke.
- 14c) Tituluen bidez adierazten diren akzioak izendunak izango dira nahitaez.
- 14d) Akzioak tituluen bidez adierazi behar direnean, akziodunak eskubidea du berari dagozkion tituluak jasotzeko, dagozkion gastuak ordainduta.

15 EUSKADIKO KOOPERATIBEN EKAINAREN 24KO 4/1993 LEGEKO 70. ARTIKULUAREKIN BAT ETORRITA, HURRENGOETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 15a) Liburuak eta gainerako kontabilitate-erregistroak azalezatu eta folioztatuak izango dira eta, erabili baino lehen, Merkataritza Erregistroak egokituko ditu.
- 15b) Kooperatibek, behar bezala eta egunean jarrita, Batzar Orokorraren akten liburua eramango dute, besteak beste.
- 15c) Kooperatibek, behar bezala eta egunean jarrita, Artezkaritza Kontseiluaren akten liburua eramango dute, besteak beste.
- 15d) Kooperatibek, behar bezala eta egunean jarrita, inbentario-balantzeen liburua eta eguneroko liburua eramango dituzte.

16 INTERES EKONOMIKOKO ELKARTEEI DAGOKIENEZ, ZEIN DA ZUZENA?

- 16a) Enpresarien arteko aldi baterako lankidetzeta sistema bat da, obra, zerbitzu edo hornidura bat egiteko edo garatzeko. Denbora zehaztuta edo zehaztu gabe egon daiteke.

- 16b) Elkarte horien helburua da beren bazkideen jardueraren garapena erraztea edo jardueraren emaitzak hobetzea.
- 16c) Eurentzako irabazteko asmoa izan dezakete.
- 16d) Ez dute nortasun juridiko propiorik.

17 AURREZKIARI BURUZKO ZUZENTARAUARI DAGOKIONEZ (2003KO EKAINAREN 3KO 2003/48/EEE), INTERES-ORDAINKETEN BIDEZ AURREZKIETATIK LORTZEN DIREN ETEKINEN ZERGA SISTEMAREN ARLOAN, ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 17a) Zuzentarauaren helburua da aukera ematea estatu kide batean beste estatu kide bateko pertsona fisikoen alde egiten den interes-ordainketaren bidez lortzen diren etekinak zergapetze efektiboaren menpe egoteko, azken estatu kide horren legezko xedapenekin bat etorrira.
- 17b) Interes-ordainketa hauei dagokienez, salbuespenik gabe, estatu kideen arteko informazio trukatzeko automatiko bat aukeratu da, pertsona fisiko onuradunak egoitza fiskala duen estatu kidean interes-ordainketa horien zergapetze efektiborako aukera emateko bitarteko gisa.
- 17c) Estatu kideen arteko informazio trukatzeko automatiko bat ezarri da; baina, Belgika, Luxenburgoko eta Austria kanpo geratu dira. Izan ere, herrialde horiek trantsizio-epealdi bat dute, zeinean, gainontzeko estatu kideei informazioa eman beharrean, aipatutako Zuzentarauak arautzen dituen aurrezki-etekinen iturrian atxikipen bat aplikatu behar baitute.
- 17d) Zuzentaraia kredituen gaineko interes-ordainketen bidez aurrezkietatik ateratzen diren etekinen zerga-sistemara mugatzen da, eta kanpo uzten ditu pentsioen eta aseguru-prestazioen zerga-ordainketari lotutako gaiak.

18 EUROPAR BATASUNAREN ARAU-SISTEMARI DAGOKIONEZ, HURRENGO BAI EZTAPENETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 18a) Europako Erkidegoaren arautegiak Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Parlamentuak emandako arau juridikoak dira, eta, Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, zuzeneko ondorioak dituzte estatu kideetan, horiek barruko araudirik onartu beharrik gabe.
- 18b) Europako Erkidegoaren arautegiek estatu kide guztiak edo batzuk behartu egiten dituzte lortu beharreko helburuari dagokionez, eta jarduteko askatasuna uzten die, helburu horiek lortzeko erabili beharreko moduari eta bitartekoei dagokienez.
- 18c) Erabakia bere osagaietan eta hartzaile guztientzat behartzen duen egintza bat da. Arautegiak eta zuzentarauak bezala, arrazoitu beharko dira, eta proposamenei eta derrigorrezko txostenei buruzkoak izango dira, Itunaren arabera. Erabakiek hartzaile zehatza daukate, eta hori estatu kide bat edo beste subjektu batzuk izan daitezke. Erabakia tresna juridiko egokia da hartzaile bakarrari baldintzak, eskubideak edo betebeharrak ezartzeko.
- 18d) Erabakiek, arautegiek bezala, zuzeneko aplikazioa daukate eta zuzenean behartzen dute beren osagai guztietan. Diferentzia da ez dutela irismen orokorrik, hau da, erabakia hartzaile zehatz batzuei zuzenduta dagoela, eta hartzaile horiek estatu kide bat, batzuk edo partikularrak (pertsona fisikoak edo juridikoak) izan daitezke.

19 EKONOMIA ITUNAREKIN BAT ETORRITA, ZERGA ARAUDIARI DAGOKIONEZ, LURRALDE HISTORIKOEN ONDOKOA EGINGO DUTE:

- 19a) Benetako zerga-presio orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantenduko dute.
- 19b) Estatuko gainerako lekuetan dagoen zerga-presio orokor bera mantenduko dute.
- 19c) Benetako zerga-presio orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan dagoenaren parean mantenduko dute.
- 19d) Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea errespetatu eta bermatuko dute, salbu eta, salbuespeneko kasuetan Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten entitateen lehiakortasuna lagundu eta hobetu behar bada.

20 EKONOMIA ITUNEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ARBITRAJE BATZORDEARI DAGOKIONEZ, BAIETAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 20a) Arbitraje Batzordeak hiru kide izango ditu. Horien izendapena Ogasun Ministroak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak formalizatuko dute. Arbitraje Batzordeko kideak legelari gisa hamabost urte baino gehiago aritu diren itzal handiko adituek hautatzen dituzte.
- 20b) Arbitraje Batzordeak bosturtekoan aginduko du kupoa zehazteko metodologia zein izango den.
- 20c) Arbitraje Batzordeak, besteak, beste, zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebatziko ditu.
- 20d) Arbitraje Batzordeak hartutako erabakiei, betetze-indarrekoak badira ere, administrazio auzi gaitako errekurtsioa baino ezin izango zaie aurkeztu Auzitegi Goreneko arlo horretako salan.

21 EKONOMIA ITUNEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, APLIKATU BEHARREKO ARAUEI ETA SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINARAZPENARI DAGOKIENEZ, BAIETAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

- 21a) Aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek, lurralde erkideko arauak bete beharko dituzte
- 21b) Zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboek ere arautegi autonomoa aplikatuko zaie baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badituzte.
- 21c) Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, zerga-egoitza edonon dutela ere, foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete zerga, aurreko ekitaldian horietariko bakoitzaren lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren heinean.
- 21d) Foru Aldundiei soil-soilik dagokie zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboek Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea, nahiz eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez 7 milioi euro izan, lurralde bakoitzean ekitaldian egindako eragiketen bolumena alde batera utzita.

22 EKONOMIA ITUNEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, APLIKATU BEHARREKO ARAUEI ETA EZ-EGOLIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ORDAINARAZPENARI DAGOKIENEZ, BAIETAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 22a) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko. Atzerriko egoiliarren diren pertsona edo erakundeek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei zerga honi buruzko arautegi autonomoa aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez entitate egoiliarrentzat ezarritakoarekin bat etorrira.
- 22b) Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du zerga, menpeko lanaren ondoriozko zuzeneko edo zeharkako etekinak direnean, lan hori euskal lurraldean egiten bada.
- 22c) Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du zerga, ekonomia-ustategien etekinak direnean, jarduerak euskal lurraldean egiten badira.
- 22d) Erakunde ez-egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia, ondasun higiezinaren titularraren egoitza iraunkorra euskal lurraldean badago, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiari ordaindu behar zaio.

23 EKONOMIA ITUNEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIETAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 23a) Aseguru-Primen gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko. Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute.
- 23b) Zerga Bereziak itundutako zergak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira horiek eraentzeko. Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute.
- 23c) Fabrikazio Zerga Bereziak foru aldundiek eskatuko dituzte, zerga horien sortzapena Euskadin baldin bada.
- 23d) Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia foru aldundiek eskatuko dute, garraiobideak euskal lurraldean eskuratzen direnean.

24 EKONOMIA ITUNEAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

- 24a) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kasuan, Euskadin dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere, kasuan kasuko aldundiaren eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik jakinarazpena egin beharko zaie Estatu Administrazioari eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.
- 24b) Foru Aldundiei dagokie zerga ordainaraztea Hidrokarbuero Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergan, zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen inportazioak eta Erkidego barruko eskuraketak Euskaditik egiten direnean.
- 24c) Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga lurralde historikoetako erakunde eskudunek ematen dituzten arauen bidez arautuko da, ibilgailua lurralde horretan erabiltzekoa denean.
- 24d) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga lurralde historikoetako erakunde eskudunek ematen dituzten arauen bidez arautuko da. Horrela, landa eta hiri izaera duten ondasunak zergapetuko ditu, horien eskritura publikoa Lurralde Historiko horretako notario elkargokidearen aurrean egiten denean.

25 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 25a) Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak soilik eman ditzake zergen arloko foru arauak eta gainerako xedapenak interpretatzeko edo argitzeko xedapenak.
- 25b) Tributuak, zeinahi ere den euren izena, honela sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.
- 25c) Kontribuzio bereziak zerga-egitate hau duten tributuak dira: herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea edo zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea Zuzenbide Publikoko erregimenean, hain zuzen ere zergapekoei dagozkienak, haiek ukitzen dituztenak edo haiei onura ekartzen dietenak, baldin eta zerbitzu edo jarduera haiek ez badituzte beraiek eskatzen edo ez badituzte euren borondatez jasotzen edo ez badituzte egiten sektore pribatukoak.
- 25d) Zergaren sortzapena zerga-egitatea gauzatzen eta zerga-betebehar nagusia sortzen denean gertatzen da. Zerga bakoitzaren arautegiak sartu beharreko kuota edo kopurua (edo zati bat) zerga sortzen den unean ez beste batean eskatuko dela ezarri ahal izango du.

26 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 26a) Tributuen aplikazio-eremuan ondokoak sartzen dira: Zerga Administrazioak zergapekoei informazioa eta laguntza emateko egiten dituen jarduerak eta tributuek kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dituenak, eta zergapekoek euren eskubideez baliatzean edo euren zerga-betebeharrak betetzeko egiten dituzten jarduketak.
- 26b) Zergapekoek eska dezakete Zerga Administrazioak, zerga-egitatea gertatu edo preskripzio-epealdia amaitu baino lehen, ebazpen loteslea eman dezala zenbait egitate, egintza edo negozio juridikok edo zenbait eragiketak eurentzat edukiko dituzten zerga-ondoreez.
- 26c) Zerga Administrazioak jaso eta sei hilabete pasatu baino lehen erantzun behar die zergei buruzko galdera idatziei. Epe horretan zehar erantzuten ez badu, horrek ez du esan nahi kontsulta egiteko idatzian adierazitako irizpideak onartzen direnik.
- 26d) Zergapekoek Zerga Administrazioari eska diezaiokete, zerga bakoitzari buruzko foru arauak edo araudiek hala aurreikusten dutenean, aurretiaz eman dezala zerga-zorra eragin duten errenten, produktuen, ondasunen, gastuen eta gainerako elementuen balioespena, zergen ondoreetarako loteslea izango dena.

27 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

- 27a) Zergen kudeaketa esaten zaio zergak aplikatzera bideratutako administrazio-jarduketa guztien multzoari, bilketa eginkizunean sartzen direnei izan ezik.
- 27b) Zergen kudeaketako prozedura bakarra dago, hain zuzen ere, autolikidazioaren bitartez hasitako prozedura; zergapekoak autolikidazioa aurkezten du, eta bertan zehazten da zerga-zorren kopurua, edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua.
- 27c) Edozein kasutan, peritu-tasazio kontrajarria aurkeztuta, zerga-administrazioak balioak egiaztatze erabilitako bideak zuzentzeko, ez da etengo likidazioaren betearazpena, ezta errekurtsioa jartzeko epea edo horren aurkako erreklamazioa jartzekoa ere.
- 27d) Egiaztapen mugatuaren prozeduraren bidez Zerga Administrazioak kasu batean ere ezin izango die hirugarren pertsonen finantza-mugimenduei buruzko informaziorik eskatu. Hala ere, zergapekoei zerga-betebeharren oinarrian edo kuotan eragina duten finantza-eragiketen frogagiriak aurkezteko eskatu ahal izango die.

28 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DAGOKIO ZERGA-IKUSKAPENARI?

- 28a) Zerga-betebeharren egitateak ikertzea, Administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.
- 28b) Zordunaren ondarearen aurkako jarduketak egitea, haren ondasunak eta eskubideak exekutatzea eta, behar izanez gero, kautelazko neurriak hartzea.
- 28c) Zerga-betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean, eskubideen, errenten, ekoizkinen, ondasunen, ondareen, enpresen, eta gainontzeko elementuen balioa egiaztatzea.
- 28d) Zerga onurak edo pizgarriak aplikatzeko eta zerga-itzulketak lortzeko behar diren betekizunak, eta zerga-erregimen bereziak ezarri ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla frogatzen dituzten egiaztapenak.

29 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ZERGA-BILKETARI DAGOKIONEZ?

- 29a) Ordainarazpen-aldia automatikoki hasten da borondatez ordaintzeko aldia amaitutakoan.
- 29b) Ordainarazpen-aldia hasteak berekin ekarriko du berandutza-interesak eta ordainarazpen-aldiko errekareruak eskatzea, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak eskatzea ere.
- 29c) Premiamendu prozedura administrazio-prozedura da; prozedura honen funtsa zordunaren zerga-zorrek beraren ondareari helduta kobratzeko jarduketak egitea da. Premiamendu probidentziaren aurka egiteko arrazoi hau baino ez da onartuko: likidazioa jakinaraztea.

29d) Betiere, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatuta, Zerga Administrazioak enbargatzen errazena diren eta kalterik gutxien eragingo dioten ondasunak eta eskubideak enbargatuko dizkio zergapekoari, hain zuzen ere, zor duen zenbatekoa estaltzeko beste. Nolanahi ere, zergapekoaren etxebizitzara sartuta enbargatu behar diren ondasunak eta eskubideak azkenerako utziko dira, etxebizitza Konstituzioaren babespean baitago.

30 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ZERGA-BILKETARI DAGOKIONEZ?

- 30a) Zerga Administrazioak kreditu-erakunde batean edo pertsona zein erakunde gordailuzain batean jarritako fondo, balore, titulu edo bestelako ondasunen berri badu, zor den zenbatekoa estaltzeko beste enbargatu ahal izango ditu; horretarako ez du edukiko zertan zehaztu identifikazio-datuak ez zergapekoak erakundean dituen kontu, gordailu edo eragiketa guztien egoera.
- 30b) Enbargatutako ondasunak eta eskubideak enkante, lehiaketa edo adjudikazio bidez besterenduko dira, arau bidez zehazten diren kasuetan eta ezartzen diren baldintzak beteta.
- 30c) Adjudikatu aurretik, Zerga Administrazioak noiznahi askatuko ditu enbargatutako ondasunak zor guztiak ordaintzen badira.
- 30d) Zerga-zorra ordaindu behar duena hiltzen bada, zerga-bilketako prozedura amaitu egiten da. Horretarako, nahikoa izango da zergapekoaren heriotza jasoarazita egotea eta oinordekoei jakinaraztea.

31 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ZEHATZEKO AHALARI DAGOKIONEZ?

- 31a) Foru arauetan edo legeetan tipifikatutako ekintzek eta omisioek ez dute zergen arloko arau-hausteagatiko erantzukizunik ekarriko zerga-betebeharrak betetzeko Administrazioak eskaintzen dituen programa informatikoen akatsen ondoriozkoak direnean.
- 31b) Zerga Administrazioak uste badu arau-hauste bat Herri Ogasunaren aurkako delitua izan daitekeela, erruduntasun-testigantza bidaliko dio jurisdikzio eskudunari edo espedientea igorriko dio Fiskaltzari, interesduna entzun ondoren. Horrez gainera, bertan behera utziko du administrazio-prozedura, eta eten egingo da. Agintaritza judizialaren kondena-epaiak ez du eragotziko administrazio-zehapena ezartzea.
- 31c) Zergen arloko arau-hausteen zehapenak bateragarriak dira gertatzen diren errekaruekin eta berandutza-interesekin.
- 31d) Desegindako sozietate eta erakundeek egindako zergen arloko arau-haustek euren oinordekoei eskualdatuko zaizkie.

32 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ZEHATZEKO AHALARI DAGOKIONEZ?

- 32a) Zergen arloko arau-haustek dira foru arau honetan edo besteren batean zein legeren batean edozein mailatako zabarkeriaz tipifikatu eta zehaztu diren doluzko edo erruzko ekintzak eta omisioak.
- 32b) Zerga-zehapenak ondoko irizpideen arabera bakarrik mailakatuko dira, aplikatu daitezkeen heinean: zergen arloko arauak behin eta berriro haustea, datuak ezkutatzea, iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jardutea. Mailakatze-irizpideak ezin daitezke aplikatu aldi berean.
- 32c) Zergen arloko arau-hausteen erantzukizuna honako kasuetan azkenduko da: batetik, arau-hauslea hiltzen denean; bestetik, Administrazioak zehapenak ezartzeko duen administrazio-ahalaren preskripzio-epea edo iraungipen-epea amaitzen denean.

- 32d) Zerga-zehapen irmoak grazia bidez soilik barka daitezke. Barkamen hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuak emango du, berak zuzenean zein norbait horretarako eskuordetuta. Ezarritako zehapenak industriaren edo ekonomiaren sektore handi baten ekoizpen-ahalmena eta enplegu kopurua modu larrian eragozten baditu edo herritar guztien interesei kalte handia egiten badie, barkamen-eskaera Ogasuneko zuzendari nagusiak egingo du, interesdunaren eskaera jaso ondoren.
- 33 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ADMINISTRAZIO-BIDEAN EGINDAKO BERRIKUSPENARI DAGOKIONEZ?**
- 33a) Berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko diru-errekamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak inpugnatutako egintzaren betearazpenaren etendura ekarriko du. Horretarako, beharrezkoa izango da zerga-zorra borondatez ordaintzeko aldi egotea edo premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtso bat aurkeztuta egotea. Bi kasutan, betiere, zorraren zenbatekoa zein den kontuan hartu gabe.
- 33b) Zehapen baten aurka berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko diru-errekamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak, beraren betearazpena automatikoki etenda geratuko da, eta ez da zertan bermerik eman behar izango administrazio-bidean irmoak izan arte.
- 33c) Administrazio-bidean emandako etenaldia mantenduko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen barruan zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazten dionean errekurtso hori sustatu eta etetea eskatu duela. Etendura horrek jarraitu egingo du, administrazio-bidean ezarri den bermeak indarrean jarraitzen badu eta bere eraginkortasuna mantentzen badu, harik eta organo judizialak eskatutako etenduraren gainean dagokion erabakia hartu arte. Zehapenen kasuan, etendura mantenduko da inolako bermerik jarri behar izan gabe, harik eta erabaki judiziala hartu arte.
- 33d) Errekurtsoaren edo errekamazioaren gainean emandako ebazpenaren ondorioz inpugnatu den egintzaren zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutza-interesak likidatuko dira.
- 34 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ADMINISTRAZIOAREKIKO DIRU-ERREKLAMAZIOEI DAGOKIONEZ?**
- 34a) Zergak aplikatzeari dagokionez, administrazioarekiko diru-errekamazioa jar daiteke, besteak beste, behin behineko edo behin betiko likidazioen aurka.
- 34b) Halaber, administrazioarekiko diru-errekamazioa jar daiteke errenta, produktu, ondasun, eskubide eta gastuen balio-egiaztapenen aurka; baita balioak, etekinak eta oinarriak finkatzeko egintzen aurka ere, zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.
- 34c) Kasu batean ere ezin da administrazioarekiko diru-errekamazioa jarri amortizaziorako plan bereziak onartu edo ukatzen dituzten egintzetan.
- 34d) Administrazioarekiko diru-errekamazioa jar daiteke zerga-zehapenak ezartzen dituzten egintzen aurka.
- 35 FAKTURAZIO BETEBEHARRAK ARAUPETU DITUEN APIRILAREN 6KO 57/2004 FORU DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?**
- 35a) Fakturretan edo ordezkio agirietan zenbatekoa eurotan eman behar da.
- 35b) Fakturak edo ordezkio agiriak edozein hizkuntzatan luzatu ahal dira. Hala ere, Zerga Administrazioak, enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen badu, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio esparruan egindako eragiketegi dagozkien fakturretatik ofiziala ez den hizkuntza batean eginak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial batera itzultzeko eskatu dezake, bai eta lurralde horretan ezarritako enpresaburu, profesional edo subjektu pasiboek jasotzen dituzten fakturak itzultzeko ere.

- 35c) Hartzaile bakarrarentzat hainbat egunetan egindako eragiketa guztiak faktura bakarrean jaso daitezke, baldin eta eragiketa horiek guztiak hil natural berean egin badira.
- 35d) Enpresaburu edo profesionalak ondasunak ematean baliokidetasun errekgua jasanarazi behar dutenean, ondasun-ematearen faktura bereiz luzatu behar dute beti, eta fakturan aplikatutako errekgu-tasa eta errekguaren zenbatekoa adierazi behar dituzte.
- 36 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA BETEBEHAR FORMALAK ARAUPETZEN DITUEN ABENDUAREN 22KO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 205/2008 FORU DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?**
- 36a) Zergapekoen zentsuan zergen arloko harremanetarako edo zerga ondoreak dituzten harremanetarako identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar duten pertsonak eta erakundeak agertuko dira.
- 36b) Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan egon behar duten pertsona fisikoek, bai eta pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek ere, zerga egoitzaren aldaketaren berri eman behar dute aldaketa gertatzen denetik hilabete pasatu baino lehen. Jakinarazpen horretarako, zentsu horretan zentsuko aldaketa aitortpena aurkeztu behar da.
- 36c) Pertsona fisiko eta juridikoek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren zergapekoek, identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga ondoreak sortzen dituztenetarako. Hala ere, hori ez da beharrezkoa izango testamentu-ahalordea baliatu zain dauden jaraunspenentarako, zergen arloko harremanak edo zerga ondoreak sortzen dituzten harremanak izan arren.
- 36d) Zergen arloko eragiketak edo zerga ondorioak sortzen dituzten eragiketak egiten dituzten edo halakoetan parte hartzen duten espainiarrek nortasun agiri nazionala eskuratu behar ez badute, atzerrian bizi direlako edo 14 urtetik beherakoak direlako, identifikazio fiskaleko zenbakia lortu behar dute. Horretarako, beren borondatez eska dezakete nortasun agiri nazionala edo Zerga Administrazioari eska diezaiokete identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.
- 37 PFEZ: ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA TESTAMENTU-AHALORDEA BALIATU ZAIN DAUDEN JARAUNSPENEN ZERGA-ARAUBIDEARI DAGOKIONEZ?**
- 37a) Oinarri likidagarria lortzeko, hala badagokio, zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenarenean murrizpen hauek egin behar dira, bakar-bakarrik: epailearen erabakiz egindako urteko mantenua, jaraunsiaren kargura.
- 37b) Oinarri likidagarria lortzeko, hala badagokio, zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenarenean murrizpen hauek egin behar dira, bakar-bakarrik: epailearen erabakiz egindako pentsio konpentsagarriak, jaraunsiaren kargura.
- 37c) Oinarri likidagarria lortzeko, hala badagokio, zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenarenean murrizpen hauek egin behar dira, epailearen erabakiz egindako pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenua, jaraunsiaren kargura.
- 37d) Oinarri likidagarria lortzeko, hala badagokio, zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenarenean murrizpen hauek egin behar dira: epailearen erabakiz egindako pentsio konpentsagarriengatik eskuratutako kenkariak, jaraunsiaren kargura, eta gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak.
- 38 ADIERAZI ZEIN DEN AUKERA ZUZENA. FAMILIA-UNITATE BEREKO PFEZ-AREN ZERGAPEKO BIREN KASUAN, BATEN OHIKO BIZILEKUA BIZKAIAN BADAGO, ETA BESTEARENA ARABAN:**
- 38a) Zerga ordainketa batera egiteko aukera dute, eta berdin da non aurkezten duten aitortpena, ogasun bien artean ondoren egiten den konpentsazio-doikuntza dela eta.

- 38b) Ezin izango dute zerga ordainketa batera egin, eta zergapeko bakoitzak bere ohiko bizilekua duen lekuan ordaindu beharko ditu zergak.
- 38c) Bater a egin ahal izango dute zerga ordainketa Bizkaiko Foru Aldundian, ohiko bizilekua Bizkaian duen zergapekoaren oinarri likidagarria handiagoa denean.
- 38d) Zerga ordainketa batera egitea aukeratzen badute, aitorpena Foru Ogasun bietan aurkeztu beharko dute.

39 PFEZ ZERGAN, JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKIN GARBIA ZEHAZTEKO, ZUZENENKO ZENBATESPENAREN MODALITATE ERRAZTUAN, HONAKO GUTXITZE HAU DAGO JASOTA:

- 39a) 100eko 5, nekez justifika daitezkeen gastuak eta hornidurak direla-eta.
- 39b) 100eko 10, nekez justifika daitezkeen gastuak, hornidurak eta amortizazioak direla-eta.
- 39c) 100eko 10, nekez justifika daitezkeen hornidurak eta gastuak direla-eta.
- 39d) 100eko 5, amortizazioak, hornidurak eta nekez justifika daitezkeen gastuak direla-eta.

40 PFEZ: ETXEBIZITZA BATEN ERRENTAMENDUAREN KASUAN (HIRI ERRENTAMENDUAREN LEGEKO 2. ARTIKULUAN HALAKOTZAT HARTUTAKOA), ZEIN DIRA ZERGETAN KEN DAITEZKEEN GASTUAK?

- 40a) Bakar-bakarrik, errentan hartutako etxebizitza eskuratu eta/edo birgaitzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesak.
- 40b) Bakar-bakarrik, errentan hartutako etxebizitza eskuratu, birgaitu edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesak eta gainontzeko finantza-gastuak.
- 40c) Sarrerak lortzeko beharrezko gastu guztiak, errentan hartutako etxebizitza amortizatzeko erabilitako zenbatekoak barne.
- 40d) Bakar-bakarrik errentan hartutako etxebizitza eskuratu edo birgaitzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesak eta gainontzeko finantza-gastuak.

41 54 URTEKO ZERGAPEKO BATEN KASUAN, ZEIN MUGA DAUKATE, ZERGAREN SORTZAPEN EGUNEAN, PFEZ-EN ZERGA-OINARRIAREN MURRIZTAPENEN GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEN ALDEKO EKARPEN PERTSONALAK EGITEAGATIK?

- 41a) 8.000 €
- 41b) 11.000 €
- 41c) 10.500 €
- 41d) 10.000 €

42 PFEZ-EN ARAUDIAREKIN BAT ETORRITA, ONDASUN ERKIDEGOAK DESEGITEAN EDO ERKIDEAK BANATZEN DIRENEAN, ZER ULERTUKO DA?

- 42a) Osaeran aldaketa gertatu da, baina ez da sortzen zerga-egitaterik.
- 42b) Batzuetan, ondarearen osaeran aldaketa egon daiteke, eta ondarearen balioan ere bai.
- 42c) Ez dago aldaketarik ondarearen osaeran.
- 42d) Ondarearen osaeran aldaketa dagoela alde batera utzita, zergapekoaren ondarearen balioaren aldaketak ondare-irabazi eta -galeraren arabera ordaintzen du.

43 PFEZ-EN ARAUDIAN ARAUTUTAKO FAMILIA-UNITATE MODALITATEEI DAGOKIENEZ, HURRENGO AUKERETATIK ZEIN DA ZUZENA?

- 43a) Familia-unitateko kideen zehazpena zergaldiaren denbora gehienez dagoen egoera kontuan izanik burutuko da.
- 43b) Ilobak familia-unitateko kideak izan daitezke, aitona-amonekin batera.
- 43c) Izatezko bikote guztiek osatzen duten familia-unitatea.

43d) Inor ezin da izan 2 familia-unitatetako kidea aldi berean.

44 KUOTA OSOAREN HURRENGO KENKARIETATIK, ZEIN EZ DATOR BAT PFEZ-EN ARAUDIAREKIN?

44a) Seme-alabei urteko mantenuak ordaintzeagatiko kenkaria.

44b) Langileek enpresan parte hartzeagatiko kenkaria.

44c) Esleitu daitezkeen atxikipenengatiko kenkaria.

44d) Nazioarteko adopzioa egiteagatiko kenkaria.

45 EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA: ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREN BITARTEKARITZARIK GABE LORTUTAKO ETEKINEI DAGOKIEN ZERGA-KUOTATIK BAKARRIK KENDU DAITEZKE KOPURU BATZUK, ZEIN DIRA HORIEK?

45a) Dohaintzengatiko eta dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkariei dagozkien kopuruak eta zergapekoen errenten gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

45b) Dohaintzengatiko kenkariei dagozkien kopuruak eta zergapekoen errenten gainean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

45c) Dohaintzengatiko kenkariei dagozkien kopuruak.

45d) Dohaintzengatiko eta dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkariei dagozkien kopuruak eta esleitu daitezkeen atxikipenak.

46 ADIERAZ EZAZU AUKERA ZUZENA. EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAK EZARTZEN DU ERAKUNDE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZI BAT EZARTZEN DU.

46a) Edozein titulu dela bide, Bizkaian eduki edo jabetzan dituzten ondasun higiezin nahiz horien gaineko erabilera edo lupertzerako eskubideen jabe diren erakunde ez-egoiliarrei aplikatzen zaie.

46b) Karga bereziaren tipoa % 5ekoa da.

46c) Karga bereziak ordaintzetik salbuetsita daude estatuak, atzerriko herri erakundeak, nazioarteko organismoak eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten entitateak.

46d) Karga bereziaren kuota ez da gastu kengarria izango zergaren zerga-oinarria zehazteko.

47 PFEZ: ATXIKIPENA JASATEN DUTEN ERRENTAK. HURRENGO ERRENTEN ARTEAN ZEIN EZ DAGO ATXIKIPENARI LOTUTA?

47a) Telebistako programa batek dirutan emandako 1000 euroko saria.

47b) Inbertsio-funtsa baten partaidetzak eskualdatzearen ondorioz sortutako ondare-irabazia.

47c) Baso-jarduera baten irabaziak.

47d) Finantza-entitate baten akzioak saltzearen ondorioz sortutako ondare-irabazia.

48 PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUDIAREN ARABERA, ERRENTA HAUETATIK ZEIN EZ DAGO ATXIKIPENARI EDO KONTURAKO SARRERARI LOTUTA?

48a) Irudi-eskubidea ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozen etekinak.

48b) Enpresa bati etxebizitza bat bere langileentzat errentan ematetik datozen etekinak.

- 48c) Edozein motatako entitatearen dibidenduak edo mozkin-partaidetzak, urtean 1.500 eurotik gorakoak ez direnak.
- 48d) Etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketatik datozen etekinak, baldin eta Europar Batasuneko estatu kide bateko bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen badira.

49 SOZietateen GAINEKO ZERGAREN ARAUDIAREN ARABERA, HARTZEKODUNAREKIN LOTUTA DAUDEN PERTSONEK EDO ERAKUNDEEK IZAN DITZAKETEN KAUDIMEN-GABEZIEN ONDORIOZ KREDITUEN NARRIATZEAK ERAGINDAKO GALERAK:

- 49a) Judizio bidez aitortutako kaudimen-gabezietan soilik dira kengarriak.
- 49b) Euren izatearen edo zenbatekoaren gaineko arbitraje-prozedura edo prozedura judicial baten barruan daudenean soilik dira kengarriak.
- 49c) Kasu batean bakarrik dira kengarriak: zergaren sortzapenaren unean, zorduna edo haren administratzaileetariko bat konkurtsoan dagoela adieraziz gero edo ondasunak ostentzeagatiko delitua dela-eta prozesatuta egonez gero.
- 49d) Inongo kasutan ez dira kengarriak.

50 SOZietateen GAINEKO ZERGAN, ENTITATE LOTUEN ARTEKO ZERBITZUENGATIK IZANDAKO GASTUAK MERKATUKO BALIO NORMALAREN ARABERA BALORATU BEHAR DIRA, ETA EUREN KENGARRITASUNAK HONAKO BALDINTZA HAUETAKO BAT DU:

- 50a) Eginiko zerbitzuen deskripzioa eta zenbatekoa zehatz jasota adieraztea zerbitzua jaso duen entitatearen urteko kontuen memorian.
- 50b) Zerbitzuen egileak bere PFEZaren edo Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenean zerbitzu hari dagokion diru-sarreran gehitzea.
- 50c) Eginiko zerbitzuek abantaila edo onura ekartzen badiote edo ekar badieziaiokete hartzaileari.
- 50d) Zerbitzu egileak edo hartzaileak Zerga Administrazioari aurkeztea zerbitzuaren kostuak banatzeko hitzarmena, araudian aurrez ikusitako baldintzen arabera.

51 ONDOREN AZALTZEN DIREN KONTZEPTUETATIK ZEIN HARTZEN DA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERATZAT, SOZietateen GAINEKO ZERGAREN KUOTA LIKIDOAN DAGOKION KENKARIA APLIKATZEKO?

- 51a) Lehendik ere existitzen den produktu edo produkzio-prozedura bat bezeroak ezarritako baldintza berezi batzuei egokitzea.
- 51b) Kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa.
- 51c) Gizarte zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu azterketak.
- 51d) ISO 9000 serieko kalitate-ziurtagiria lortzea.

52 SOZietateen GAINEKO ZERGAN, ALDERDI POLITIKOEK ZEIN KARGA TASAREN ARABERA ORDAINTZEN DUTE EUREN JARDUERARI EZ DAGOZKIEN USTIAPEN EKONOMIKOETATIK DATOZEN ETEKINENGATIK?

- 52a) % 28ko tasa orokorra, edo, enpresa txikiei aplikatu dakizkiekeen baldintzak betetzen badituzte, % 24.
- 52b) % 21eko tasa.
- 52c) % 10eko tasa.
- 52d) Ez dute ordaintzen, zerga horretatik salbuetsita baitaude.

53 ONDARE SOZietateen KASUAN, EZ DIRA APLIKAGARRIAK SOZietateen GAINEKO ZERGAREN ARAUDIAN HONAKO ARLO HAUEI BURUZ AURREZ IKUSITAKO ARAUAK:

- 53a) Eragiketa lotuen balorazioa.
- 53b) Nazioarteko zerga-gardentasuna.
- 53c) Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa.
- 53d) Aurreko hiruren arteko bat bera ere ez.

54 SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUDIAREN ARABERA, SOZIETATE BAT ONDARE SOZIETATETZAT JOTZEKO, NAHITAEZ BETE BEHAR DA:

- 54a) Zergaldiko laurogeita hamar egunetan zehar gutxienez, haren aktiboaren erdia baino gehiago balioak izatea.
- 54b) Zergaldia osoan zehar, bere kide guztiak pertsona fisikoak izatea.
- 54c) Sozietatearen kapitalaren partaidetzak izendunak izatea.
- 54d) Aurreko hiru ataletan aipatutako baldintzak batera betetzea guztiak.

55 ZERGA BATERAKUNTZAREN ARAUBIDEAN, TALDEKO SOZIETATEEK APARTEKO MOZKINEN BERRINBERTSIOA APLIKATU DEZAKETE, SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN FORU ARAUKO 22. ARTIKULUAN AURREZ IKUSTEN DENA. HORRETARAKO:

- 55a) Berrinbertsioa egin ahalko du aparteko mozkina lortu zuen sozietateak edo zerga-taldeko beste sozietate batek; hala ere, berrinbertsioa ezingo da gauzatu zerga-taldeko beste sozietate batetik eskuratutako osagai batean.
- 55b) Berrinbertsioa egin ahalko du aparteko mozkina lortu zuen sozietateak edo zerga-taldeko beste sozietate batek, eta, gainera, berrinbertsio hori zerga-taldeko beste sozietate batetik eskuratutako osagai batean gauzatu ahalko da, baldin eta osagai hori berria bada.
- 55c) Aparteko mozkina lortu duen sozietateak berak egin beharko du berrinbertsioa, eta ezingo da berrinbertsio hori zerga-taldeko beste sozietate batetik eskuratutako osagai batean gauzatu.
- 55d) Aparteko mozkina lortu duen sozietateak berak egin beharko du berrinbertsioa, eta berrinbertsio hori zerga-taldeko beste sozietate batetik eskuratutako osagai batean gauzatu ahal izango da.

56 PFEZ: ATXIKIPENA JASATEN DUTEN ERRENTAK. HURRENGO ERRENTEN ARTEAN ZEIN EZ DAGO ATXIKIPENARI LOTUTA?

- 56a) Telebistako programa batek dirutan emandako 1000 euroko saria.
- 56b) Inbertsio-funts baten partaidetzak eskualdatzearen ondorioz sortutako ondare-irabazia.
- 56c) Baso-jarduera baten irabaziak.
- 56d) Finantza-entitate baten akzioak saltzearen ondorioz sortutako ondare-irabazia.

57 PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUDIAREN ARABERA, ERRENTA HAUETATIK ZEIN EZ DAGO ATXIKIPENARI EDO KONTURAKO SARRERARI LOTUTA?

- 57a) Irudi-eskubidea ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozen etekinak.
- 57b) Enpresa bati etxebizitza bat bere langileentzat errentan ematetik datozen etekinak.
- 57c) Edozein motatako entitatearen dibidenduak edo mozkin-partaidetzak, urtean 1.500 eurotik gorakoak ez direnak.
- 57d) Etekin esplizituko finantza-aktiboaren eskualdaketatik datozen etekinak, baldin eta Europar Batasuneko estatu kide bateko bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen badira.

58 OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUAREN ARABERA, ETXEBIZITZA DOAN ESKURATZEN BADA ETA ESKURATZAILEA ETXEBIZITZA HORRETAN BIZI IZAN BADA ESKUALDATZAILEAREKIN ESKUALDAKETA GERTATU AURREKO BI URTEETAN:

- 58a) Salbuetsita egongo da zerga ordaintzetik.
- 58b) Zerga-oinarrian % 95eko kenketa egin ahalko du, baina kenketa horren muga 200.000 euro izango dira.
- 58c) Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo da, baina bakarrik eskuratzea *mortis causa* izan bada.
- 58d) Zerga-oinarrian % 95eko kenketa egin ahalko du, baina kenketa horren muga 200.000 euro izango da, soil-soilik *mortis causa* eskuratzeetan.

59 INTER VIVOS EGITEN DIREN DOHAINTZETAN ETA GAINERAKO DOAKO ESKURATZEETAN, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI DAGOKION ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEKO, DOHAINTZAN EMANIKO ONDASUNEN BALIOARI DAGOKIONEZ:

- 59a) Ezingo da inolako zorrik kendu, eta honako zama edo karga hauek besterik ez dira kengarriak izango: betirako, behin-behineko edo ordaingarri izaera izan eta euren balioa benetan gutxitzen dutenak.
- 59b) Kengarri izango dira eskualdatutako ondasunekiko eskubide errealez bermatzen diren zorrak, baldin eta agiri publiko bidez egiaztatzen bada badirela eskubide horiek.
- 59c) Kengarri izango dira eskualdatutako ondasunekiko eskubide errealez bermatzen diren zorrak, baldin eta eskuratzailerak sinesgarriro hartzen badu bere gain bermatutako zerga ordaintzeko obligazioa.
- 59d) Kengarri izango dira eskualdatutako ondasunekiko eskubide errealez bermatzen diren zorrak, baldin eta eskubide horiek badirela egiaztatzen bada edo agiri publiko bidez, edo Kode Zibileko 1.227 artikuluko baldintzak betetzen dituen dokumentu pribatu baten bidez, edo beste eraren batean.

60 ZEIN EZ DA ZUZENA? ONDARE ESKUALDAKETEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUDIAREN ARABERA, ZERGADUN GISA ZERGA ORDAINTZERA BEHARTURIK DAGO:

- 60a) Ondasun-eskubideen eraketan, egintza hori bere alde egiten den pertsona.
- 60b) Edozein motatako maileguak eratzean, mailegaria.
- 60c) Fidantzen eraketan, fidatzailea.
- 60d) Desjabetzeko eskubideak lagatzean, lagapen-hartzailea.

61 ONDARE ESKUALDAKETA ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAJASOTZEN DUEN KOSTU BIDEZKO ONDARE ESKUALDAKETEN MODALITATEARI LOTURIKO ADMINISTRAZIO-KONTZESIOAK ERATZEAN, ZEIN DA ZERGA-TASA APLIKAGARRIA?

- 61a) % 6
- 61b) % 4
- 61c) % 1
- 61d) % 6 edo % 4, hurrenez hurren, ondasun higiezinaren edo ondasun higikorren gainekoa izatearen arabera.

62 SOZIJETATE ANONIMO BATEK KIDE GISA PARTE HARTZEN DUEN SOZIJETATE MUGATU BATEAN ERAKETAN, ETA, KAPITALEAN DUEN PARTAIDETZA ORDAINTZEKO, BERE ENPRESA-JARDUERETAN ERABILTZEN ZUEN MAKINERIA JARTZEN DUEN ERAKETA ETA EKARPEN HORIEK ZEIN MODALITATERI LOTURIK DAUDE?

- 62a) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "Sozietate-eragiketak".
- 62b) Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "Egintza Juridiko Dokumentatuak".
- 62c) Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "Sozietate-eragiketak".
- 62d) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridikoko Dokumentatuen gaineko Zergako "Sozietate-eragiketak" eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridikoko Dokumentatuen gaineko Zergako "Egintza Juridiko Dokumentatuak".

63 ONDARE ESQUALDAKETA ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA APLIKATZEKO, SOZIETATE BATEN KAPITALA GUTXITZEAK EZ BADA KAR KIDEEI ONDASUN MATERIALAK EDO ESKUBIDEAK EMATEA, ETA ESKRITURA PUBLIKO BIDEZ FORMALIZATZEN BADA:

- 63a) "Sozietate-eragiketak" modalitateari loturik dago, baina ez du likidaziorik sortzen; eta eskriturak ez du zergarik ordaintzen "egintza juridiko dokumentatuengatik".
- 63b) "Sozietate-eragiketak" modalitateari loturik dago, baina ez du likidaziorik sortzen; eta eskriturak % 0,5eko zerga ordaindu behar du "egintza juridiko dokumentatuengatik", notario-agiri gisa.
- 63c) Ez dago "sozietate-eragiketak" modalitateari loturik, eta eskriturak % 0,5eko zerga ordaindu behar du "egintza juridiko dokumentatuengatik", notario-agiri gisa.
- 63d) "Sozietate-eragiketak" modalitateari loturik dago, baina hartatik salbuetsita; eta eskriturak ez du zergarik ordaintzen "egintza juridiko dokumentatuengatik".

64 ERAKUNDE HAUETAKO ZEINTZUEK ORDAINTZEN DITUZTE ZERGAK SALBUESPENIK GABE ONDARE ESQUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAN?

- 64a) Gurutze Gorriak.
- 64b) ONCEk.
- 64c) Elkargo profesionalek.
- 64d) Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoek.

65 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIAN ARAUTUTAKO SALBUESPENEI DAGOKIENEZ, HONAKO BAIETZAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 65a) BEZ-etik salbuetsita daude estomatologo, odontologo, mekanikari-haginelari eta hagin-protesien egileek, nork bere lanbidearen eremuan, burutzen dituzten zerbitzugintzak, bai eta berauek burutzen dituzten hagin-protesi eta masaila-ortopedien emate, konponketa eta ezarketak ere, edozein delarik ere aipatu eragiketa horien kargudun pertsona.
- 65b) BEZ-etik salbuetsita daude kreditu, kanbio-letra, ordainagiri eta beste agiri batzuen kobrantzak kudeatzeko zerbitzuak.
- 65c) BEZ-etik salbuetsita daude eraikuntzen bigarren eta ondorengo emateak, eraikuntzak kokatuta dauden lurak barne, baldin eta haiek eraikitze edo birgaitzeko lanak amaitu ondoren gauzatzen badira.
- 65d) BEZ-etik salbuetsita daude aduana-kontrolaren pean portu eta aireportuetan dauden zergarik gabeko dendetan burutzen diren ondasun-emateak, eskuratzailak gainontzeko lurraldeetarantz berehalaxe irteten diren pertsonak direnean, bai eta gainontzeko lurraldeetan dauden portu eta aireportuak jomuga dituzten nabigazioak egiten dituzten ontzi eta aireontzietan burutzen direnak ere.

66 ZERGA-EGOITZA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN DUEN ENPRESA BATEK MERKATUGAIEN GARRAIOA EGINGO DU IFZ/BEZ ALEMANIARRA DUEN ENPRESA BATENTZAT. GARRAIOA BIZKAIAN HASIKO DA, ETA ITALIAN AMAITU. BIZKAIKO ENPRESAK EGINDAKO EUROPAKO BATASUNAREN BARNEKO GARRAIOA:

- 66a) Espainiako BEZ-aren zergapekoa da, lurralde horretan hasten delako garraioa.
- 66b) Alemaniako BEZ-aren zergapekoa da, garraio-zerbitzuaren hartzailearen IFZ/BEZ-aren arabera.
- 66c) Italiako BEZ-aren zergapekoa da, bertan prestatzen direlako Europako Batasunaren barnean garraiatuko diren merkatugaiak.
- 66d) Espainiako BEZ-aren zergapekoa da; izan ere, garraioa hasi edo amaitzen den lekua gorabehera, eragiketa garraio-zerbitzua ematen duenaren egoitzan egiten da.

67 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIKO ZERGA-TASEN ERREGULAZIOARI DAGOKIOEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 67a) 100eko 7ko zerga-tasa ezarriko zaie etxebizitza bezala erabili ahal diren eraikinei edo berauen zatiei, garajeko plazak barne (gehienez unitate bat dutenak) eta batera eskualdatzen diren eta haietan kokatuta dauden eranskinei.
- 67b) 100eko 7ko zerga-tasa ezarriko zaie osasun-laguntza zerbitzuei, Foru Arau honen 20. artikuluaaren arabera salbuespenik ez duten sanitate eta hagin urgazpenari, eta ur berozko sendabideei.
- 67c) 100eko 4ko zerga-tasa ezarriko zaie publizitatea soilik edo nagusiki ez duten liburu, egunkari eta aldizkariari, baita ondasun hauekin batera prezio bakarrean ematen diren elementu osagarriari ere.
- 67d) 100eko 4ko zerga-tasa ezarriko zaie Europako Batasunaren barneko eskuraketei edo giza erabilerarako sendagaien inportazioei, eta lortuak izateko egoki eta maiz erabiliak izan daitezkeen medikuntzako gaiari, era galenikoei eta bitarteko produktuei.

68 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIKO ZERGA-TASEN ERREGULAZIOARI DAGOKIOEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 68a) Enpresa edo lanbide jardueretan erabiltzeko eskuratzen edo inportatzen ez diren ondasun eta zerbitzuengatik jasaten edo ordaintzen diren kuotek ez dute ekarriko inolako kenkaririk, nahiz eta gero ondasun eta zerbitzu horiek osorik zein zati batez jardueretarako erabili.
- 68b) Subjektu pasiboek kendu ahal izango dituzte Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak, baldin eta ondasun edo zerbitzuak, zeinen eskuraketa edo inportazioak kenkariak egiteko eskubidea zehazten baitute, subjektu pasiboak zerga ezartzen den lurraldetik kanpoko eragiketarako burutzean erabiltzen baldin baditu, kenkaria izateko eskubidea sortuko bailukete lurralde barruan burutuz gero.
- 68c) 100eko 50eko kenkaria izango dute merkatugaiak garraiatzeko erabilitako ibilgailu mistoak eskuratu, inportatu eta errentan emateagatik jasandako kuotek; horiek 100eko 50eko proportzioan egongo dira enpresa-edo lanbide-jardueraren garapenari lotuta.
- 68d) Lain orokorrari buruzko araua egutegiko urtebetean aplikatuz kuota kengarrien guztirako kopurukina lain bereziari buruzko araua aplikatuz aterako litzatekeena baino 100eko 20an handiagoa denean.

69 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGIMEN BEREZIEN ARAUBIDEARI DAGOKIOEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 69a) Baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia borondatezkoa izango da.
- 69b) Araubide berezi erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia subjektu pasiboek arauz zehaztutako epean eta eran berariaz uko egin ezean aplikatuko dira.

- 69c) Egiten dituzten jardueretako batengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren araubidetik bazter geratu diren edo hari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.
- 69d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zeharkako zenbatespenean kontuan hartuko dira, bereziki, araubide sinpleturako ezarritako indizeak, moduluak eta gainerako parametroak, azken araubide horri uko egin dioten subjektu pasiboiei dagokienean.

70 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGIMEN BEREZIEN ARAUBIDEARI DAGOKIONEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 70a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiapenen titularrei aplikatuko zaie, baldin eta araubide horri uko egiten ez badiote.
- 70b) Erregimen berezitik kanpo geratuko dira egiten dituzten jardueretako batengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren araubidetik bazter geratu diren edo hari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.
- 70c) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia aplikatu ahalko zaie nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiapenei, baldin eta berauek sorozetatik zuzenean lortzen badituzte gainontzekoei eskualdatzeko natura-, landare- edo abere-produktuak; baita ustiapen horien zerbitzu osagarri ere.
- 70d) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboek, bertan sartutako jardueri dagokienean, ez dute zerga likidatu, jasan edo ordaindu behar, ezta ondasunen inportazioan edo ondasunen Europako Batasunaren barruko eskuraketan ere.

71 J.Z.U. JAUNA GOZOEN ETA BESTELAKO OPILEN MERKATARIA DA, ETA BEZ-AREN BALIOKIDETASUN-ERREKARGUAREN ERREGIMEN BEREZIARI HELDUTA DAGO. EKITALDIAN ZEHAR, HOZKAILU BERRIAK ESKURATU DITU, BERE PRODUKTUAK GORDETZEKO. ADIERAZI ZEIN DEN AUKERA ZUZENA, GOIAN AZALDUTAKO KASUAN.

- 71a) Bere produktuak saltzean, J.Z.U. jaunak, BEZ aplikagarriaren tasaz gain, dagokion baliokidetasun-errekargua ere jasanarazi beharko du.
- 71b) J.Z.U. jaunak salduko dituen produktuen hornitzaileek BEZ aplikagarria eta dagokion baliokidetasun-errekargua jasanarazi beharko diote hari euren fakturretan.
- 71c) J.Z.U. jaunak hiru hilean behin likidatu eta ordaindu beharko du denbora tarte horretan egin dituen salmentetan jasanarazitako BEZa.
- 71d) Hozkailuak eskuratzekoan, J.Z.U. jaunak, BEZ aplikagarriaren tasaz gain, dagokion baliokidetasun-errekargua ere jasan beharko du, txikizkako merkataria baita.

72 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUBIDE BEREZIEI DAGOKIENEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 72a) Bidaia-agentzien araubide berezia aplikatu daitekeen eragiketetan, subjektu pasiboek zerga-oinarria eragiketaz eragiketa edo orokorrean zehaztu ahal izango dute zergaldi bakoitzean.
- 72b) Bidaia-agentzien araubide berezia aplikatu daitekeen eragiketetan, zerga-oinarria, edozein kasutan, negatiboa izan ahalko da.
- 72c) Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren errenta-eratzikipeneko araubideko pertsona fisiko edo erakundeak diren txikizkako merkatariei aplikatuko zaie, baldin eta, beste betekizunen artean, ondasun higigarriak edo abereak inolako ekoizpen-, lanketa- edo manufaktura-prozesuren menpe jarri gabe aurkeztu ohi badituzte euren bidez edo hirugarrenen bidez.

- 72d) Baldin eta baliokidetasun-errekarguaren araubide berezi hau aplikatu ahal zaion subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturiko beste enpresa edo profesional batzuk egiten baditu, araubide berezi honen menpeko txikizkako merkataritza jarduera ekonomikoez besteko arlotzat hartuko da.

73 ZEIN DIRA FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK?

- 73a)
73b) Tarteko produktuen gaineko Zerga, Hidrokarburoen gaineko Zerga, Tabako lanen gaineko Zerga eta Elektrizitatearen gaineko Zerga.
73c) Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga bereziak, ikatzaren gaineko zerga berezia, Hidrokarburoen gaineko Zerga, Tabako lanen gaineko Zerga eta hidrokarburo batzuen txikizkako salmenten gainekoa.
73d) Alkoholaren eta edari alkoholduen zerga bereziak, Hidrokarburoen gaineko Zerga, Tabako-moten gaineko Zerga eta hidrokarburo batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga.

74 NOLA APLIKATZEN DIRA TABAKO LANEN GAINEKO ZERGAREN ZERGA-TASAK?

- 74a) Tasa proportzional eta espezifiko bereziak aldi berean aplikatzen zaizkie tabako lanei.
74b) Tasa proportzional bakarra aplikatzen zaie tabako lan guztiei, eta, gainera, tasa berezi bat aplikatzen zaie puruei.
74c) Tasa proportzional bakarra aplikatzen zaie tabako lan guztiei, eta, gainera, tasa berezi bat aplikatzen zaie zigarro txikiei.
74d) Tasa proportzional bakarra aplikatzen zaie tabako lan guztiei, eta, gainera, tasa berezi bat aplikatzen zaie zigarretei.

75 GARRAIOBIDE BATZUEI BURUZKO ZERGA BEREZIAN, ZEIN IBILGAILUREN BEHIN BETIKO LEHENENGO MATRIKULAZIOA EZ DAGO ZERGAREN MENPE (ZERGA APLIKATU BEHARREKO LURRALDEAN)?

- 75a) Alokairu-jarduerei bakar-bakarrik atxikitzeko matrikulatutako ibilgailu automobilena.
75b) Beren ezaugarriak direla eta autobide eta errepideetako zaintza eta laguntza zerbitzuak emateko bakarrik balio duten ibilgailuena.
75c) Kontraprestazioaren bitartez gidariei irakasteko jarduerari bakar-bakarrik atxikitzeko matrikulatutako ibilgailu automobilena.
75d) Ezinduen izenean eta eurek bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailu automobilena.

76 ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGAREN ARABERA, ZEIN ERAGIKETA DAUDE ZERGA PEAN ETA EZ SALBUETSITA?

- 76a) Merkantzia edo bidaiarien nazioarteko garraioari lotutako aseguru-eragiketak.
76b) Teknika aktuarialean oinarritutako kapitalizatze-eragiketak.
76c) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzaren gaineko aseguru-eragiketak.
76d) Kauzio aseguruaren eragiketak.

77 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUAN AURREZ IKUSITAKOAREN ARABERA, HONAKO HAUETATIK ZEIN EZ DAGO ZERGA HONEN PEAN?

- 77a) Daudeneko udalerrien jabetzakoak diren ondasun higiezinak, baldin eta herri jabarikoak badira, haien erabilera edozein dela ere.
77b) Landa-lurreko eraikuntzak, hau da, landa-lurretan egonda, nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustategien garapenerako beharrezkoak diren nekazaritzako eraikin eta instalazioak.

- 77c) Daudeneko udalerrien jabetzakoak diren ondasun higiezinak, baldin eta ondare-ondasunak badira, kontraprestazioaren bitartez hirugarrenei lagatakoak izan ezik.
- 77d) Daudeneko udalerrien jabetzakoak diren ondasun higiezinak, baldin eta herri jabarikoak badira, eta betiere enpresa publikoek kumatzen badituzte.

78 HONAKO HAUETATIK ZEIN DAGO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN PEAN?

- 78a) Hiri-ondasun higiezin baten gaineko jabetza soilaren titularitatea.
- 78b) Landa-lurreko ondasun higiezin baten gaineko gozamenerako eskubide erreal baten titularitatea.
- 78c) Edozein ondasun higiezin (hiri edo landa-lurrekoa) inskripzioa Jabetza Erregistroan.
- 78d) Ondasun higiezin baten gaineko administrazio-emakida baten titularitatea.

79 HONAKO HAUETATIK ZEIN DA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGAPEKO EGITATEA?

- 79a) Nekazaritza-jarduerak, independenteak direnean.
- 79b) Bezeroei erregalatzeko artikuluen erakusketa.
- 79c) Txikizkako salmenta, isolatutako egintza edo eragiketa bat egitea.
- 79d) Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainketa moduan jasotzen diren produktuen salmenta.

80 EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGAN, NOLA ONARTUKO DIRA ZERGAKO TARIFAK (BERAIETAN GUTXIENEN KUOTAK FINKATUKO DIRA) ETA HAI EK APLIKATZEKO JARRAIBIDEA?

- 80a) Foru dekretu bidez.
- 80b) Foru agindu bidez.
- 80c) Foru dekretu arauemaile bidez.
- 80d) Foru arau bidez.

ERRESERBA GALDERAK

81 KOOPERATIBEN ZERGA ARAUBIDEARI BURUZ INDARREAN DAGOEN 9/1997 FORU ARAUAREN ARABERA, KOOPERATIBA SOZIETATEAREN ZERGA-OINARRI BEREZIAN SARTZEN DIREN KOOPERATIBA-ITZULKINEK:

- 81a) % 50eko hobaria izango dute Sozietateen gaineko Zergaren kuota osoan.
- 81b) Ez dute eskubiderik emango Sozietateen gaineko Zergaren kuotan zergapen bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzeko.
- 81c) Eskubidea emango dute Sozietateen gaineko Zergaren kuotan zergapen bikoitza saihesteko kenkari bat aplikatzeko: jasotako zenbatekoaren % 10.
- 81d) Eskubidea emango dute Sozietateen gaineko Zergaren kuotan zergapen bikoitza saihesteko kenkari bat aplikatzeko: jasotako zenbatekoaren % 10, edo, bereziki babestutako kooperatiba bat denean, % 5.

82 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 82a) Bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren erakundeen kontu korrante, aurrezki eta eperako gordailu, mailegu- eta kreditu-kontuetako mugimenduei eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboei (kontu iragankorretan islatzen edo txkeetan eta bestelako ordainketa-aginduetan gauzatzen diren eragiketak barne) buruzko banakako errekerimenduak ikuskapen edo zerga-bilketa eginkizunetan jardutean egin daitezke, arau bidez ezartzen den Zerga Administrazioaren organoak baimena eman ondoren.
- 82b) Epaitegiek eta auzitegiek Zerga Administrazioari eman behar dizkiote, ofizioz edo berak eskaturik, euren epai-jarduketan ondorioz ezagutzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak, eta sumarioko eginbideen sekretua errespetatu behar dute.
- 82c) Zergei buruzko Foru Arauan edo legezko beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko, beharrezkoa izango da beti ukiturikoaren baimena, hala zehazten baitu Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak.
- 82d) Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, ez bada, besteak beste, beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzeko bere eskumenen eremuan zerga-betebeharrak betearazten.

83 LANGILEEN ESTATUTUAN XEDATUTAKOA BETETZEKO, KALERATZE KOLEKTIBO ESANGO ZAIO EKONOMIA, TEKNIKA, ANTOLAKETA EDO EKOIZPENEKO ARRAZOIETAN OINARRITUTA KONTRATUAK AMAITZEARI, BALDIN ETA LAUROGEITA HAMAR EGUNEKO EPEAN AMAITZEAK HONAKO HAUENGAN BADU ERAGINA:

- 83a) Bost langilerengan, enpresako langile guztiei eragiten dienean.
- 83b) Hamar langilerengan, ehun eta hamar langile dituzten enpresetan.
- 83c) Hogeita hamar langilerengan, mila langile dituzten enpresetan.
- 83d) Hamabost langilerengan, berrehun langile dituzten enpresetan.

84 KODE ZIBILAREN ARABERA, ADIERAZI ZEIN DEN ZUZENA:

- 84a) Testamentu berezizat hartzen dira testamentu militarra, itsas testamentua eta testamentu olografoa.
- 84b) Adingabeak lekuko izan daitezke testamentuan, baldin eta hamalau urtetik gorakoak badira eta behar besteko zentzutasuna badute.
- 84c) Testamentu olografoa adin nagusikoek soilik egin dezakete.
- 84d) Heriotza egunetik hasita urtebeteko epean jaso behar da protokoloan testamentu olografoa. Baldintza hori betetzen ez bada, ez da baliozkoa izango.

85 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BAI EZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA, ZEHATZEKO AHALARI DAGOKIONEZ?

- 85a) Zergen arloko zehapen-prozedura zergen aplikazioari buruzko prozeduratik berezita izapidetuko da.
- 85b) Kudeaketa- edo ikuskapen-prozeduretakoren baten ondorioz hasten diren zehapen-prozedurak ezingo dira prozedura hori jaso duen pertsona edo erakundearekiko hasi, dagokion likidazioa edo ebazpena jakinarazten edo jakinarazitzat jotzen denetik aurrera sei hilabete igaro badira.
- 85c) Zergen arloko zehapen-prozedura bukatzeko, gehien jota hamabi hileko epea izango da, prozedura abiarazi dela jakinarazten den unetik aurrera zenbatzen hasita. Prozedura bukatutzat joko da prozedura bera ebazten duen administrazio-egintza jakinarazten edo jakinarazitzat jotzen den egunean.
- 85d) Zehapen baten aurka administrazio-errekurtsu edo erreklamazioa garaiz eta behar den eran jartzeak zergapekoaren adostasunaren ondorioz aplikatu beharreko murrizketa galtzea ekarriko du.

86 PFEZ ZERGAN, KARGA OROKORRAREN BATEZ BESTEKO TASA HANDIAGOA BADA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN TASA OROKORRA BAINO, ETA ONDARE IRABAZIAK BADAUDE (JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKIN GARBI POSITIBOAREN PARTE DIRENAK):

- 86a) Kuota osoa oinarri likidagarri guztiarekin kalkulatu da, baina horretarako ez da kontuan hartuko ondare irabazia, horri % 18ko karga tasa aplikatuko baitzaio.
- 86b) Kuota osoa oinarri likidagarri guztiarekin kalkulatu da, baina horretarako ez da kontuan hartuko ondare irabazia, horri beti aplikatuko baitzaio enpresa txikienezako Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra: % 24, alegia.
- 86c) Kuota osoari honako kopuru hau murriztuko zaio: alegia, batez besteko karga tasa orokorraren eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa osatzen duten ondare irabazien zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.
- 86d) Kuota osoari kopuru hau murriztuko zaio: alegia, batez besteko karga tasa orokorraren eta % 18ko tasaren arteko diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa osatzen duten ondare irabazien zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.

87 ADIERAZI ZEIN BAI EZTAPEN EZ DEN ZUZENA, SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUDIAK ERREGULATZEN DUEN AMORTIZAZIO ASKATASUNARI DAGOKIONEZ:

- 87a) Askatasunez amortiza daitezke ibilgetu ukiezin moduan aktibatu diren ikerketa eta garapen gastuak, amortizazio askatasuna duten elementuen amortizazioak salbu.

- 87b) Enpresa txikiek amortizazio askatasuna aplikatu dezakete ibilgetu material berriaren elementuetan (eraikinetan izan ezik), funtzionatzen hasten diren unetik aurrera.
- 87c) Bateragarriak dira amortizatzeko askatasuna eta aktibo ez korrante berrietan egiten diren inbertsioen kenkaria aplikatzea.
- 87d) Subjektu pasiboak eskatu eta Zerga Administrazioak onartu behar dute amortizazio askatasuna aplikatu ahal izatea ikerketa eta garapen jardueri lotuta dauden ibilgetu materialaren eta ukiezinaren elementuei.

88 BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGIMEN BEREZIEN ARAUBIDEARI DAGOKIONEZ, HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 88a) BEZ zergatik salbuetsita daude inbertsio-urreearen emateak, Batasun barruko eskuraketak eta inportazioak.
- 88b) Eskualdatzaileak uko egin diezaioke inbertsio-urreearen erregimen berezian arautzen den BEZetik salbuesteari, inbertsio-urreearen emateei aplikatu ahal zaienari. Horretarako, honako baldintza hauek bete behar dira: batetik, eskualdatzailearen ohiko jarduera inbertsio-urrea ekoiztea edo inbertsiokoa ez den urrea inbertsio-urree bihurtzea izatea, baldin eta ematearen xedea aipatu jardueren emaitzako inbertsio-urrea bada; eta, bestetik, eskuratzailerak enpresaria edo profesionala izatea eta enpresa edo profesional jardueretan aritzea.
- 88c) Bidaia-agentzien erregimen berezia borondatezkoa izango da.
- 88d) Bidaia-agentzien erregimen berezia aplikagarria den eragiketetan, subjektu pasiboek ez dute erasandako kuota fakturan bereiz jarri beharrik izango, kuota hau eragiketaren guztizko prezioan sartutzat jotzen dela.

PROMOCIÓN INTERNA
TÉCNICAS/OS MEDIAS/OS DE
GESTIÓN
ADMINISTRATIVA-FINANCIERA

Primer ejercicio

1 DE ACUERDO CON EL CÓDIGO CIVIL, RESPECTO A LA PROPIEDAD, SEÑÁLESE LA RESPUESTA NO CORRECTA:

- 1a) El que edifica, planta o siembra de mala fe en terreno ajeno, pierde lo edificado, plantado o sembrado sin derecho a indemnización.
- 1b) El dueño del terreno en que se edificare, sembrare o plantare de buena fe, tendrá derecho a hacer suya la obra, siembra o plantación, previa la indemnización establecida en los artículos 453 y 454, o a obligar al que fabricó o plantó a pagarle el precio del terreno, y al que sembró, la renta correspondiente.
- 1c) Respecto del tesoro oculto, cuando fuere hecho el descubrimiento en propiedad ajena, o del Estado, y por casualidad, la mitad se aplicará al descubridor.
- 1d) Son frutos naturales los que producen los predios de cualquier especie a beneficio del cultivo o del trabajo.

2 CONFORME A LO DISPUESTO EN EL CÓDIGO CIVIL, RESPECTO A LAS OBLIGACIONES DEL USUFRUCTUARIO, SEÑALE LA RESPUESTA NO CORRECTA.

- 2a) Las contribuciones que durante el usufructo se impongan directamente sobre el capital, serán de cargo del usufructuario.
- 2b) El usufructuario está obligado a hacer las reparaciones ordinarias que necesiten las cosas dadas en usufructo.
- 2c) Las reparaciones extraordinarias serán de cuenta del propietario.
- 2d) Los derechos y las obligaciones del usufructuario serán los que determine el título constitutivo del usufructo; en su defecto, o por insuficiencia de éste, se observarán las disposiciones contenidas en el Código Civil.

3 DE ACUERDO CON LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO 1280 DEL CÓDIGO CIVIL, DEBE CONSTAR EN DOCUMENTO PÚBLICO (SEÑALE LA RESPUESTA CORRECTA):

- 3a) El arrendamiento de un bien mueble por seis o más años.
- 3b) La renuncia a una herencia.
- 3c) La cesión de acciones o derechos procedentes de un acto en que la cuantía de las prestaciones de uno o de los dos contratantes exceda de 150.000 euros.
- 3d) La donación de un vehículo de turismo.

4 RESPECTO AL ARRENDAMIENTO DE VIVIENDA REGULADA EN LA LEY DE ARRENDAMIENTOS URBANOS, SEÑÁLESE LA PROPOSICIÓN CORRECTA:

- 4a) Cuando la ejecución de una obra de conservación no pueda razonablemente diferirse hasta la conclusión del arrendamiento, el arrendatario tiene derecho a desistir del contrato con indemnización de los perjuicios ocasionados.
- 4b) En caso de obras necesarias de adaptación de la vivienda realizadas por el arrendatario con minusvalía, al término del contrato deberá reponer la vivienda al estado anterior si así lo demanda el arrendador.
- 4c) El arrendatario puede realizar las obras de reparación que sean urgentes, sin comunicárselo al arrendador con anterioridad, cuando se trate de evitar un daño inminente o una incomodidad grave.
- 4d) Las pequeñas reparaciones que exija el desgaste de la vivienda por su uso ordinario, son de cargo del arrendador.

5 RESPECTO A LA INSTITUCIÓN DE ALBACEA EN EL CÓDIGO CIVIL, SEÑALE LA PROPOSICIÓN CORRECTA:

- 5a) No podrá adquirir por compra, salvo en subasta pública o judicial, bienes confiados a su cargo.
- 5b) El menor podrá ser albacea, con la autorización del padre o tutor.
- 5c) El albaceazgo es cargo gratuito. Podrá, sin embargo, el testador señalar a los albaceas la remuneración que tenga por conveniente.
- 5d) El albaceazgo es cargo obligatorio, de acuerdo con la ley.

6 DE ACUERDO CON LA LEY 3/1992, DE 1 DE JULIO DE DERECHO CIVIL FORAL VASCO, RESPECTO AL TESTAMENTO POR COMISARIO, SEÑALE LA PROPOSICIÓN CORRECTA:

- 6a) En todo caso, el comisario deberá realizar, en el plazo de seis meses desde que, fallecido el comitente, tenga conocimiento de su designación, un inventario de todos los bienes, derechos, cargas y obligaciones de la sucesión, de cuyo contenido deberá dar cuenta a los presuntos sucesores.
- 6b) En todo caso, el comisario deberá realizar, en el plazo de un año desde que, fallecido el comitente, tenga conocimiento de su designación, un inventario de todos los bienes, derechos, cargas y obligaciones de la sucesión, de cuyo contenido deberá dar cuenta a los presuntos sucesores.
- 6c) El cargo de comisario es, en todo caso, gratuito. Podrá, sin embargo, el causante señalar al comisario la remuneración que tenga por conveniente.
- 6d) En todo caso, mientras no se defiera la sucesión y la herencia sea aceptada, será representante y administrador del caudal el cónyuge viudo, y, en defecto de éste, el propio comisario.

7 RESPECTO A LA EXTINCIÓN DEL CONTRATO DE TRABAJO, SEÑALE LA PROPOSICIÓN NO CORRECTA:

- 7a) El contrato de trabajo se extinguirá por voluntad del trabajador, fundamentada en un incumplimiento contractual del empresario.
- 7b) El contrato de trabajo se extinguirá por despido del trabajador.
- 7c) En los casos de muerte, jubilación o incapacidad del trabajador, éste tendrá derecho al abono de una cantidad equivalente a un mes de salario.
- 7d) El contrato de trabajo se extinguirá por decisión de la trabajadora que se vea obligada a abandonar definitivamente su puesto de trabajo como consecuencia de ser víctima de violencia de género.

8 DE ACUERDO CON EL ESTATUTO DE LOS TRABAJADORES, SEÑALE LA PROPOSICIÓN NO CORRECTA, RESPECTO A LAS INDEMNIZACIONES LEGALES:

- 8a) En caso de modificación sustancial de las condiciones de trabajo, si el trabajador resultase perjudicado por la misma, tendrá derecho a rescindir su contrato y percibir una indemnización de veinte días de salario por año de servicio prorrateándose por meses los períodos inferiores a un año y con un máximo de nueve meses.
- 8b) En caso de despido colectivo, los trabajadores tendrán derecho a una indemnización de veinte días de salario por año de servicio, prorrateándose por meses los períodos de tiempo inferiores a un año, con un máximo de doce mensualidades.

- 8c) En caso de despido por ineptitud del trabajador conocida o sobrevenida con posterioridad a su colocación efectiva en la empresa, se exige poner a disposición del trabajador, simultáneamente a la entrega de la comunicación escrita, la indemnización de veinte días por año de servicio, prorrateándose por meses los períodos de tiempo inferiores a un año y con un máximo de doce mensualidades.
- 8d) En caso de despido nulo, los trabajadores tendrán derecho a optar por su readmisión inmediata o bien, por una indemnización de cuarenta y cinco días de salario, por año de servicio, prorrateándose por meses los períodos de tiempo inferiores a un año hasta un máximo de cuarenta y dos mensualidades.

9 DE ACUERDO CON EL ARTÍCULO 221 DEL CÓDIGO DE COMERCIO, LAS COMPAÑÍAS DE CUALQUIER CLASE QUE SEAN, SE DISOLVERÁN TOTALMENTE POR LAS CAUSAS QUE SIGUEN: (SEÑALE LA PROPOSICIÓN NO CORRECTA):

- 9a) Por el cumplimiento del término prefijado en el contrato de sociedad.
